

IRUÑEKO HIRIA NAZIOARTEKO XV. XAKE TXAPELKETA (TORNEO ITXIA).

2005.go abenduaren 23tik 29ra.

Iruñeko Oberena taldeak antolatutako Xake Torneo itxi honek 60.000 euroko aurrekontua dauka. Aurten, jokalarien batz besteko ELOa 2.642 puntukoa da. Soilik edizio batean gainditu da batz besteko hori (2002an, baina orduan 4 jokalarik soilik aritu ziren). Zazpi egunetan, denak denen aurka lehiatuko dira, Iruña Park Hotelean. Txapelketa hau ACP Tour zirkuituan sartuta dago, bigarren urtez (munduko torneorik onenak barneratzen ditu).

JOKALARI PARTE HARTZAILEAK.

Ruslan Ponomarev (Ukrania).- 2.705 puntu, FIDE ELOan. Edizio honetan erakargarritasun gehien duen jokalaria. Munduko Txapeldun izandakoa da (18 urtez, historiako txapeldunik gazteena). Orain, 22 urte ditu eta jolastu berria den Xakeko Munduko Kopan txapeldunorde geratu da. Torneo honetako 96-97ko edizioan ere parte hartu zuen.

Sergei Tiviakov (Holanda).- 2.700 puntu, FIDE ELOan. 32 urte ditu. Sobiet Batasunean jaio zen. Orain bere momenturik onenean dago.

Pentala Harikrishna (India).- 2.673 puntu, FIDE ELOan. 18 urtekoa. 2004. urtean gazte mailako munduko txapeldun izan zen. Oso joko taktikoa dauka eta Indiako xakean itxaropen berria ordezkatzeko du.

Laurent Fressinet (Frantzia).- 2.643 puntu, FIDE ELOan. 24 urtekoa. Taldekako Europako Txapelketa irabazi zuen 2001. urtean. Urte horretan Iruñeko torneo honetan aritu zen.

Zviad Izoria (Georgia).- 2.641 puntu, FIDE ELOan. 21 urtekoa. Georgiako harrobi oparoko ekoizpen distiratsua. Bigarren maila diskretoan izanda ere, gazteen torneo ia guztiak menpean izan ditu.

Jan Timman (Holanda).- 2.630 puntu, FIDE ELOan. 54 urteko jokalarik hau xakearen legendan sartuta dago. Fischer erretiratu ondoren, urte luzeetan Sobiet Batasunetik kanpoko jokalaririk onena izan da.

Ivan Cheparinov (Bulgaria).- 2.618 puntu, FIDE ELOan. 18 urtekoa. Topaloven urratsen atzetik dabil. Iaz, Iruñean, torneo honetako Irekia irabazi zuen. Azkeneko 4 urteetan, Espainian zehar, torneo irekiak irabazten dabil.

Oscar De la Riva (Espainia).- 2.530 puntu, FIDE ELOan. 33 urte dauka. 2003. urtean Espainiako txapeldun izandakoa, herri horretako jokalaririk indartsuenetako bat da. Andorrako Federazioaren Eskola bereziaz arduratzen da.

MAISUEN TORNEO HONEN PALMARESA.

1991. urtean: Leonid Yudasin.
1992. urtean: Leonid Yudasin.
1993. urtean: Joel Lautier.
1994. urtean: Jordi Magem.
1995. urtean: Alexander Morozevich.
1996. urtean: Jordi Magem.
1997. urtean: Zoltan Almasi.
1998. urtean: Miguel Illescas.
1999. urtean: Alexander Morozevich.
2000. urtean: Nigel Short.
2001. urtean: Viktor Bologan.
2002. urtean: Rustan Kasimdzhanov.
2003. urtean: Miguel Illescas.
2004. urtean: Boris Gelfand.

**IRUÑEKO HIRIA NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA IREKIKO
PALMARESA.**

1991. urtean: José Luis Fernández García.
1992. urtean: Zenón Franco.
1993. urtean: Diego Guerra.
1994. urtean: Slovodan Kovacevic.
1995. urtean: Javier Ochoa.
1996. urtean: Aleksa Strikovic.
1997. urtean: Christopher Lutz.
1998. urtean: Mijail Suba.
1999. urtean: Alexander Rustemov.
2000. urtean: Ruslan Pogorelov.
2001. urtean: Carlos García Fernández.
2002. urtean: Unai Garbisu.
2003. urtean: Roberto Cifuentes.
2004. urtean: Ivan Cheparinov.